


Ezpalak

JON TORNER

Fermin Etxegoienek jaso du Literaturako Euskadi Saria



FERMIN ETXEGOIEN idazleak jaso zuen pasa den astelehenean Literaturako Euskadi Saria, euskarazko atalean, *Autokarabana* (Pamiela) lanari esker. Hurrengo egunean banatu zituzten gainerako sariak. Euskarazko Haur eta gazte Literaturako Euskadi Saria Patxi Zubizarretak irabazi du, *Xia Tenzinen bidaiak miresgarria* liburuarekin; Saiakera atalekoa Joxe Azurmendiren *Azken egunak Gandiagarekin* obrak jaso du; Itzulpen saria Jesus Mari Mendizabalek jaso du, *Eguzki kolpeagatik* –Horacio Quirogak (1878-1937) idatzi zuen hamazapi ipuineko liburu hori–; eta Ilustraziokoa Jon Mitxelenak, *Ipuin-kontalariaren lapikoa* liburuko marrazkiengatik. Atalez atal, hauxe da aurten lehiatu den liburu kopurua:

• Euskarazko literatura: 23
 • Gaztelaniazko literatura: 26 (-2)
 • Euskarazko haur eta gazte literatura: 29
 • Gaztelaniazko haur eta gazte literatura: 7 (-1)
 • Euskarazko literatura itzulpena: 30 (-1)
 • Literatura lanaren ilustrazioa: 37 (-1)
 • Euskarazko saiakera: 15
 • Gaztelaniazko saiakera: 13

Parentesi artean azaltzen diren zenbakiak “baldintzak ez betetzeagatik” baztertutako lanak dira.

‘Iparraldeko Konpilazioa 6’

AZAROAREN 27AN aurkeztuko dute *Iparraldeko Konpilazioa 6* izeneko diskoa. Baptiste Daleman, Underneed, Kadjo, The Red Hot Nipples, Zaparrada, Tximak, Zezenaren Taldea eta The Enterprise taldeen abestiak bilduko dituzte. Ipar Euskal Herriko musika taldeak sustatzea helburu duen egitasmo zabalago baten parte da diskoa. Azaroan, adibidez, hainbat kontzertu eskainiko dituzte aipatu taldeek eta beste batzuek. (www.iparraldekokonpilazioa.org).



Sustrai Colina, Amets Arzallus, Eneritz Zabaleta, Miren Artetxe, Odei Barroso, Ekhi Erremundegi, Joanes Etxebarria eta Xumai Murua lehiatuko dira Iparraldeko Bertsolari Txapelketako finalean. Donibane Lohizunen jokatu da azaroaren 13an.



Karmele Artetxe izango da Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) zuzendari berria izango da, Batzar Nagusiak aho batez hala erabaki ostean. Artetxe historialaria da, eta euskal komunitate zientifikoa aztertzen egin ditu azken urteak. 2012ra arte beteko du zuzendari kargua.

Aurelio Arteta, Gustavo de Maeztu, Jorge Oteiza, Mari Puri Herrero, Andres Nagel eta beste 45 artistaren obrak bildu ditu Donostiako Kubo-Kutxa aretoko erakusketak. *Jai alai. Euskal pilotaren edertia* izenburupean, euskal pilota ardatz duten 150 artelan daude iksugai: margolanak, eskulturak, argazkiak... Erakusketa datorren urteko urtarrilaren 6an itxiko dute.



• **Kepa Altonaga idazlea luze elkarrizketatu dute *Beterriko Liburuan*. Hona pasartetxo bat:** «Lagun batek esan dit liburu hau [Darwin geurean] ‘amenoa’ dela. Aurreko liburuekin izan nituen kritika batzuk, baina oraingoan gehiagotan agertu dela uste dut eta erraz irakurtzen dela irakurri dute horietako batean. Ni ez nago liburuak irakurterazak izatearen alde; bai ingelesez erabiltzen den ‘readable’ terminoak adierazten duenaren alde, irakurgarri izatearen alde, alegia. Badaukat lagun bat liburu zaila dela esan didana ere, noski. Euskaraz irakurtzeko ohitura handiegirik ez duen batentzat baliteke liburu erraza ez izatea, nik nire gustuko euskara erabiltzen baitut, eta hori egin ahal izatea ez da hain erraza, editore batzuekin gora-beherak izaten baitira».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php